

Estrasburgoren ezezkoren ondoren Altsasuko auziaren epaitegi ibilbidea bukatu da / 5

Denboraldia abian: lau txirrindulari profesional, zortzi amateur eta lau kirol zuzendari sakandar / 9

Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimeneko antzezlanak Etxarri Aranatzan izanen dira / 15

Etorkizun puntadak

Baltistango emakumezkoak ahalduzko egitasmoak Olatzagutiatik bulkatuta / 2-3

Iñaki Rubio Mendoza OLATZAGUTIA

Kasualitatez ezagutu zuen ekimena, baina, ordutik, buru-belarri ibili da Txaro Otxandorena Nuñez bertan murgildurik. Boluntario gisa hasi zen Baltistan fundazioan eta egun, emakumeei zuzenduriko proiektuen koordinatzailea da. Erizaina da ofizioz, eta 12 urte daramatza Baltistango Hushe haraneko (Pakistan) biztanleen garapenerako ekimenak sustatzen. Azkena, ibarreko emakume talde batek sorturiko Ringchan kooperatiba izan da. **la 21 urtez egon zarete Pakistango Hushe haranean lanean. Zergatik sortu zen fundazioa?**

Gauza askorengatik esanen nuke. Euskal Herriko mendizaleak askotan joaten ziren Karakorum mendikatera espedizioak egitera eta han bertako jendea ezagutu eta harreman ona sortu zen haien artean. Gainera, 2001ean Felix Iñurrategi mendizalea hil zen bertan, eta haraneko jendeak hura omentzeko nahia plazaratu zuen. Hala sortu zen fundazioa. **Asko aldatu dira helburuak fundazioa sortu zenetik?**

Hasiera batean bertako mendizaleen segurtasuna bermatzeko lan egiten genuen; tresnak ematen genizkien, oso egoera txarretan lan egiten baitzuten. Gero ikusi genuen bertako biztanleak oso pobreak zirela, eta horien artean emakumeak zirela behar tsuenak. Neskak, esaterako, ez ziren eskolara joaten eta horri ekin genion. Emakume helduekin ere hasi ginen lanean, gehienak analfabetoak baitziren. Haiekin biltzen hasi ginen, biltzan zer asmo zuten ere galde-tuz, beren beharrak asetze aldera. Emakumeekin egin izan dugu lan gehienbat.

Zer dela eta hasi zinen bertan kolaboratzen?

Kasualitatez izan zen. Emakumeekin lanean hasi zirenean, eskoletan osasun aldetik lanke-ta egiteko asmoa zutela esan zidan lagun batek, eta ea proiektu txiki bat egin nezakeen eskatu zidan, osasun alorrean lan egiten bainuen. 2009. urtea zen orduan. Handik gutxira, ordea, istripu larria izan nuen, baina laster hasi nintzen berriz ere fundazioan lanean.

Zertan datza egiten duzuen lana?

Emakumeen ahalduntzea eta berdintasuna erdiesten dihardugu nagusiki. Azken batean, emakumeek nekazaritzako lanak, etxeoak eta abar egiten dituzte



Txaro Otxandorena Nuñez olaztiarra, Baltistan fundazioko kidea. IÑAKI

"Baltistango biztanleen giza garapena sustatzen dugu"

TXARO OTXANDORENA NUÑEZ BALTISTAN FUNDAZIOA

Bi hamarkada bete ditu Baltistan fundazioak, eta haren kide Txaro Otxandorena Nuñez olaztiarrak argi du bertakoen autogestioa sustatzea izanen dela etorkizuna

eta ez dute etekin ekonomikorik lortzen. Beraz, garrantzitsua da emakume horiek aurrera egitea, era horretan familiak eta, ondorioz, gizarte osoak eboluzionatuko baitu.

Zer nolako eragina izan du pandemiak bertan?

Ondorio larriak izan ditu. Eskolak itxita egon dira denbora luzean, eta ez dakigu pandemiak izan duen benetako eragina; hara joan ezin garelako batetik, eta pandemiaren jarraipen eskasa egiten delako bestetik. Proiektu

asko bertan behera gelditu dira; euskal administrazioak bertako egoera zein den egiaztatzeko eskatzen digu proiektu bat aurkezterakoan, eta hori ezinezkoa zaigunez, babes ekonomikorik gabe gelditu gara, eta bere ho-

"EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUNA ERDIESTEN DIHARDUGU NAGUSIKI"

rretan utzi behar izan ditugu ekimen asko.

Nola egiten duzue lan?

Baltistanen lagunak ditugu, gure fundazioaren parte direnak. Haiek biztanleen nahiak eta beharrak jasotzen dituzte eta proiektuak gauzatzear arduratzen dira. Guk, Euskal Herriatik, informazio hori aztertu eta proiektua bideragarria den edo ez erabakitzen dugu, gerora administrazioaren aurrean aurkezteko. Ez dugu asmatzen zer proiektu burutuko duten, beraien eskaeretatik abiatuta

egiten dugu lan, horiek burutzeko baliabideak bilatuz. Biztanleek era autonomo batean konponbidea bilatzea da xedea.

Administrazioak baiezkoa emandakoan, bertako kideek proiektua garatzeko baliabideak lortzeari ekiten diote. Gu horien prestakuntzaz ere arduratzen gara. Dena den, urtean behin joan ohi gara bertara, gauza teknikoetan laguntza eskaintzera eta proiektuak ikuskatzera.

Zein arlotan jarduten duzue, zeintzuk dira ildo orokorrak?

Oro har egiten duguna beren garapena ahalbidetzen duten tresnak sustatzea da. Pertsonen garapenerako prestakuntzetan pertsonak direla eta eskubideak dituztela azaltzen diegu, eta giza eskubideak, autoestimua eta abar lantzen ditugu horietan. Gainera, bertako baliabideak aprobetxatzen ere erakusten diegu.

Osasun alorra ere garrantzitsua izan da; biztanleak arduratuta zeuden, erditzerakoan emakume asko hil egiten baitziren, ospitalea urrun zegoelako. Emakume diot, baina 13 urteko neskato bat izan zitekeen. Gauzak horrela, emagin bat lortu zuten ibarra osatzen duten zortzi herrietan aritzeko, hilkortasun tasa dezentente altua baitzen erditzen zuten ametan. Geroztik emakume bakar bat ere ez da hil arazo horrek eraginda, eta bertako hiru neska emagintzan espezializatu dira. Gaitasuna dute horrelako iniziatibak aurrera eramateko.

Emakume helduekin ere aritzen gara. Vocational Center izeneko espazioetan biltzen dira, nahi dutenaz hitz egiteko eta, azken batean, espazio komun bat edukitzeko, gizonak bakarrik baita-taukate halakorik. Behin josteari ekin zioten, eta handik sortu zen eskaera sendo bat; saldu zitekeen zerbait egin nahi zuten. Beraz, emakume horiek egindako txanoak saltzeko iniziatiba sortu genuen denon artean.

Azaldu pixka bat proiektu horren nondik norakoak.

Espazio kolektibo horietan zue-dela, bertako emakumeek diru apur bat lortzeko enpresa bat sortu nahi zutela erabaki zuten. Guk eskuz egindako zerbait izanen zela aiposena pentsatu genuen, beraz, Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu genuen proiektua. Helburua ez zen bakarrik produktu bat egitea, prozesu oso bat ehuntzea baizik.

Hori lehenengo pausoa izan zen.

Garai hartan Arrasateko familia batek esan zidan Baltistanera joan nahi zuela, laguntzera, Felix Iñurrategiren lagunak baitziren. Familiako kide bakoitzak zertan jardunen zuen bertan pentsatzen hasi ginen: bisemeak, Julen eta Antton, sare sozialekin ibili ziren bertako gazteekin; aita, Josu, kooperatiben munduan aditua zenez, kontzeptua azaltzen aritu zen bertako gizonekin. Ama, Aintzane, irakaslea zen, baina ezinezkoa zen horretan jardutea, bertako emakumeek ez baitzekiten ingelesik. Zer edo zer praktikoa behar zuen izan. Beraz, osasun eta higiegi aldeetik behar handia zutenez, xaboia egitea erabaki genuen.

Joateko astebete falta zenean, ordea, Alberto Iñurrategi gurekin jarri zen kontaktuan, eta esan zigun Ternua arropa enpresa prest egonen litzatekeela bertako emakumeek egindako txanoak erosteko. Aste bat besterik ez zen falta Pakistanera joateko, eta Aintzane eta biok ez genekien josten, beraz tutorialak interneten ikusiaz ikasi zuen Aintzane txanoak egiten, aste bakar batean gau eta egun praktikatu.

Beraz, Baltistanera iritsita koan, hilabete eta erdi egon zen Aintzane txanoak nola josi irakasten. Gero, fundazioaren barruan sartu genuen ekimena eta behin administrazioaren babesa jasota, teknika hobetu zuten, eta kooperatiba baten nondik norakoak ikasi zituzten. Beren kooperatiba propioa sortzeraino: Ringchan, maite duzun hori, baltieraz. Guk, bitartean, proiektuaren pieza guztiak josten genituen Euskal Herrietik. Hau guztia pandemia batean egin dugu.

Zer nolako erantzuna izan du ekimenak?

Oso ondo doa dena. Ternuak 3.325 ale eskatu zituen. Orduan emakumeak materiala eta abar erosteko nola egiten zuten pentsatzen hasi ziren. Baina bertako fundazioko kideek emakume bat kontratatu zuten proiektu osoa eramateko eta oso ondo joan da. Zailtasunak zailtasun, abendua baino lehentxeago iritsi ziren guztiak. Txano bakoitzak Ternuaren etiketa bat darama, baita proiektuaren izena duen beste bat ere, txanoa josi duen emakumearen izenarekin batera.

Nola hartu du bertako gizarteak emakumeen ahalduzko prozesu hori?

Esanen nuke erresistentzia asko egon dela eta jende asko kontra dagoela. Askotan etorri zaigu nor edo nor esatera ez daudela ados, ezkutatu gabe. Baina jende asko ere alde dago, neskek eskolara joanda, adibidez, beste etorkizun bat izanen dutela kusi dutelako.

Emakume askok ez dute nahi haiek bizi izan dutena alabek pairatzea. Nahiko orokortuta dago eskolara joatea eta handik etorriko da zerbait. Askotan esan izan digute beren bizimodua aldatu nahi dugula, baina guk ez dugu ezer aldatu nahi, beraiek eskatzen dute. Guk giza garapena bertatik bertara sustatzen dugu, bidean laguntzen ditugu. Elizgizonen aldeetik, ordea, ez dugu trabarik izan; ibarreko mullah-ek (apaizaren balioidea) sarritan esan du meskitan oso garrantzitsua dela eskolara joatea. Denetarik dago.

Nola moldatzen zarete hizkuntzarekin?

Bertan ingelesez, urdueraz eta baltieraz dakien emakume bat egoten da, eta interprete lanetan aritzen da. Askok galtzen da, ordea, prozesuan. Aintzane josten irakasten egon zenean, euskaraz esaten zizkien jarraitu beharreko pausok: "Bi, hiru, lau, gora, behera..." eta haiek errepikatu egiten zuten, euskaraz. Bertako gizon batzuek badakite ingelesez, baina emakume gehienek baltieraz bakarrik dakite. Beraz,

ibaretik ateratzen direnean, dela ospitalera edo medikuarenera joateko ezin dira komunitatu. Erabat isolatuta daude emakume horiek. Orain eskolatan urduera eta ingelesa ikasteko aukera dute.

Haur eta gazteen eskolaratzea ere xede garrantzitsuenetakoa da zuek?

Urtero egiten ditugu proiektuak eskolaratzea babesteko, batez ere neskezuzendutakoak. Lehen hezkuntzan ez ezik, bigarren eta goi mailako hezkuntzan ere eskaintzen dugu laguntza. Ikasketak fundazioaren bidez finantzatzen dira, esaterako, urtero nesken eskolaratzea babesteko kanpaina bat egiten dugu, 50 euroko bonuak salduz, hori baita neska txiki baten eskolaratzeak balio duena. Gainera, goi mailako ikasketetarako bizpahiru beka ateratzen ditugu urtero.

"BERTAKO EMAKUMEEK DIRU APUR BAT LORTZEKO ENPRESA BAT SORTU NAHI ZUTELA ERABAKI ZUTEN"

"20 URTE BETE DITUGUN HONETAN, BEREN ESKU UTZI NAHI DUGU PROIEKTUA"

Ba al da pertsonalki markatu zaituen esperientziarik?

Bai, asko. Emakume horiei begietara begiratu eta zerbait sentitzen duzu, ez dakit nola esan... haiekin egotean ez duzu ulertzen zertaz ari diren, baina algarek, festa giroak... ingurua hartzen dute. Ilea ukitzen dizute, zure arropa ikusi nahi dute... beste mundu bat da. Beste mota bateko harremanak dira. Askok markatu ninduen emakumeen jarrerak, maila publiko eta pribatua zeudenean. Rol zeharo desberdinak irudikatzen dituzte esfera publiko eta pribatua. Harrigarria da. Bakarrik gelditzen direnean alaiak dira, gizonik gabe, giro pribatua.

Hori positiboa zen niretako, emakume horiek badakitelako zer nahi duten, kontua da ezin dutela lortu, baina kontuz, bere bidea egiten hasten direnean...

Nolakoa da egun bat Hushe haranean?

Oso goiz esnatzen dira. Emakume batendako umeak esnatzea da lehenengo gauza, eskolara joan daitezen. Ondoren animaliekin ibiltzen dira eta haurrak eskolara eramaten dituzte. Azken horietako asko egur bila joaten dira ikastera joan baino lehen. Hori egindakoan, emakumeak landara joan ohi dira egun ia osoa, nekazaritza lanak egitera. Gizon batendako, ordea, lan gutxi egoten da. Batzuek mendian egiten dute lan, eta beste gutxi batzuk atzerrira joaten dira erakuntzan lan egitera. Baina gehienak pasean edota meskitara

bizpahiru aldiz joanez ematen dute eguna; badira kalean taldeetan hizketan geratzen direnak ere. Bertan soldata jasotzen duten bakar batzuk ere badaude, hala nola postariren bat, irakasleak eta dendariak, baina nekazariak dira oro har, biziraupen ekonomiaren parte. Baliabide ekonomikoak lortzeko behar handia dute.

Kontent zaudete egindako lanarekin?

Bai. Horrek ez du esan nahi dena ondo egin dugunik, askotan hanka sartu baitugu. Sarritan helburu bat erdiesteko, bide zehatz bat egokiena dela pentsatu ohi dugu, baina agian ez da bide bakarra. Proiektu batean parte hartzerakoan baldintza batzuk betetzea beharrezkoa da, eta, maiz, bertako esentzia galdu egiten da. Baina beraiek baliabide propioak badituztela eta haiek direla beren bidea aurreratu behar dutenak ikasi dut, eta guk horretan lagundu baino ez dugula egin behar.

Nola ikusten duzu bertakoen etorkizuna?

Nahiko ilun ikusten dut. Turismoa izan daiteke aukera handi bat, oso ederra baita Baltistan. Baina klima eta irisgarritasun arazoak ditu; hara iristeko bi egun behar dira. Dena den, ez dakit hori irtenbide gisa ikusten ote duten. Nik aukera gutxi ikusten ditut. Bete pentsatu dut ezinbestekoa dela munduan zer dagoen ezagut dezatela, beren etorkizuna erabakitzeko.

Zein izanen da hurrengo proiektua?

20 urte bete ditugun honetan, asmoa da aurrera pauso handi bat ematea. Beren esku utzi nahi dugu proiektua. Horretarako bi gazte etorri ziren Mondragon Unibertsitatara LEINN gradua ikastera, zortzi hilabetez. Bertan metodologia berriak ikasi zituzten gerora, ibarrean, azpitik sorturiko ekimen bat egiteko. Bertako unibertsitate, enpresa, zein Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jarri ziren, baina horretan zeudela pandemia iritsi zen. Asmoa urte batean egitekoa zena bizpahirutan egitea da.

Beraz zein izanen da fundazioaren etorkizuna? Desagertu egiten da?

Nik ez nuke hori esanen, baina beste modu batean arituko gara. Nahi dutena, nahi duten eran egiteko gai izanen dira. Baliabideak dituzte, bai prestakuntza aldeetik bai bertako harremanetan. Beraiei dagokie ardura hartzea.



Baltistango emakumeak lanean. UTZITAKOIA



ASTEKOA

MAIALEN GALARTZA

Din, dan, don... amatasuna

Festan parte hartzea eta festaz beraz gozatzea ez da nahikoa. Oroimena ezinbestekoa da, baita kontaketa ere. Ezagutzaren eta zabalkuntzaren beharra du, memorian bizirauteko, desira eta nahia dira oinarria. Bakarrik modu horretan mantenduko da festa. Soilik horrela ezagutuko dugu bere esentzia.

Baina zer da oroimen hori, tradizio gabe. Betebehar sozialik gabe. Beraz, zer dira Gabonak familiarik gabe, zer dira Gabonak ondorengorik gabe. Eta nola ekarri ondorengoak emakumerik gabe. Baina nola egin ondorengoak amatasun sentimendurik gabe.

Amatasunaren beharra ezaugarri biologiko ezinbestekotzat hartzen da sozialki. Emakume on orok nahi izan behar ditu seme-alabak. Argi bada ama izan nahi dela, guztiz normala izango da. Baina ama ez izateko erabakia hartzea akatsa da, une oro zalantzan jarriko dena. "Oraindik ez zaio momentua iritsi, baina iritsiko zaio" esaten da.

Emakumeok presio handia jasaten dugu "erloju biologiko" horren harira. Izan ere, oraindik ere, familiaren sorkuntzaren tradizioa, oso sustrai sendoak dituen sinesmena da. Tradizio honen arabera, ohikoena izango litzateke herritarrok familia sortu nahi izatea. Beraz, gure bizitza desio horri bideratua antolatuko genuke. Ohitura honek noski, indar handiz eragiten du emakumeen

desioetan, gure nahietan amatasunaren zentzua inposatuz.

Bada, Dinterrek dio amatasun sentimendua, beste edozein sentimendu bezala, ziurgabea, hauskorra eta inperfektua dela. Eta, agian, jaso ditugun ideien aurka, nahi hau ez dagoela emakumeon pentsamenduan, uste bezain besteko indarrez grabatua.

Beraz, datorren urterako, amatasun sentimenduaren inposiziorik gabeko Gabonengatik topa egin dezagun.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ba al da osasuna lehentasuna?

SAKANA TRENAREN ALDE

Badira bi urte SARS-CoV-2 birusa gure bizitzetara heldu zela. Egoera berrien aurrean, gure bizitzak, ohiturak eta buruak birmoldatu behar izaten ditugu. Baina ez da beti horrela izaten, eta askorentzat errealitateak erakusten duen gordintasuna ez da nahikoa izaten bidea zuzentzeko.

Hasierako ustekabeko olatuen ondoren ohartu ginen ze puntura arte zen premia gure osasun zerbitzuen babes (hobe berandu inoiz ez baino). Baina, urte berria ohitura zaharrak. Azkenengo

seigarren olatu honen ondoren, egoera lazgarrian dago Osasunbidea; antigeno falta, aztarnari gabezia, lehen mailako arretan urritasuna... Eta bitartean, Estatuak Nafarroan inbertitutako diru kopuruaren erdia baino gehiago -52 milioi euro- zuzenean AHTri dagokiola jakin dugu. Gauzak horrela, agerikoa da diru publikoaren kudeaketaz arduratzen direnek abiadura handia lehenesten dutela osasunaren aurrean.

Alde batetik, osasun krisi batean bizi garela adierazten digute etengabe komunikabideetatik eta,

hortaz, arduratsu jokatu behar dugula. Bestetik, krisi horri aurre egiteko dauden baliabide publikoekin oso bizkor doan tren baten obrara bideratzen dute. Nor da hemen arduragabea? Zein da lehentasuna? Osasuna edo AHT?

Nafarroaren trenaren aldeko plataformaren iritiz, gaur egun dugun trenbide sarearen egokitzapena aurrera eramanez gero, abiadurazko trena ekartzeaz gain, AHTk duen proiektua baino askoz merkeagoa litzateke eta beraz, baliabide publikoak dagozkien beharretara bideratuko lirateke.

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzela Irriarte

Kolaboratzailea:

Iñaki Rubio Mendoza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Europako auzitegiko atea itxi da

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Altsasuko auziko defentsen helegiteak ez ditu aintzat hartu; auzibidea bukatu da. Auzitegiak helegiteak tramitera ez dituela onartu, besterik ez du esan; argudiorik eman gabe. Elkartasuna eskertu dute gurasoek

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Joan den urteko ilbeltzaren 23an Altsasu Gurasoak, Altsasukoak Aske herri plataformak eta auzipetuek ziklo bat itxi zuten. Giza Eskubideen Europako Auzitegia zen falta zen azken pausoa. Eman zuten, eta herenegun jakin zen auzitegiak defentsek aurkeztutako helegiteak atzera bota zituela. Inñaki auzipetuak sare sozialen bidez eman zuten erabakiaren berri eta gaineratu zuten: "justizia erakunde guztien babes faltaren aurrean, (auzia) ondo baino hobe ulertzen duen gizartea geratzen da. Estrasburgon galdu arren, beti jarraituko dugu salatzen".

Altsasuko auzia jendaurreko eta hedabideen aurreko espozizio handia izan da. Gurasoak nekaita bukatu zuten, eta, neurri batean, hala segitzen dute. Herenegun zabalduak albisteak, atzera ere, bizi izandako egoera batera eraman zituen. Benetako *déjà vu* bat. Hedabideen deiak lekukotza eske, elkarri egindako kontsultak, orain arte erabilitako ideia eta kontzeptuak freskatu beharra, sare sozialen bidezko mezuak irakurri eta erantzutea... Guztia, berriro, biziberritzea. Nekea. Baina egin beharra ere, atzera ere, auzitegi baten erabakiaren inguruan aritu beharra.

Zergatik Europara?

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak helegiteak jaso zituztela jakinarazi zuten joan den urteko garilean. Antxon Ramirez de Aldak azaldu duenez, "horrek ez zuen esan nahi dagoeneko aztertze bidean zegoela. Hurrengo tramitea oraingo hau da: helegitea onartzea edo ez". Altsasuko auzia hasi zenetik lehenengo aldia da auzipetuek eta senideek epaitegitik zuzenean jaso dutela jakinarazpena, ez hedabideen bidez. Baina oraingoan ere bada kexurako arrazoirik, Ramirez de Aldak azaldu



Urteetan zehar auzipetuek jendearen babes handia jaso dute. ARTXIBOA

"JUSTIZIA BAKARRA GURE DEFENTSEN LANA ETA JENDEAREN ELKARTASUNA IZAN DIRA"

duenez: "ez dute argudiorik eman helegitea ez onartzeko. Ez dela onartzen dioen komunikazio bat da, ez dago argudiorik. Harrituta gaude. Pena da. Argudioak eman balituzte, onartu genitzaiken edo ez. Gutxienez jakinen genuke zergatik bota dituzten atzera helegiteak".

Bai Ramirez de Aldak, bai Gortz Urritzolak Giza Eskubideen Europako Auzitegian "esperantzaz pixka bat" bazutela aitortu dute, "zuzenbidean dabilzanak esaten ziguten: Estrasburgon bukatuko da, eta han arrazoia emanen dizute. Ez da horrela izan. Alde horretatik, penatuta gaude. Baina errealista izanda, oso zaila zen. Auzitegi horretan helegite asko aurkeztu eta gutxi onartzen dira".

Urritzolak gogorarazi du "hasieratik kasu hau injustizia handi gisa ikusi dugu. Gazteen frog

asko eta eskubideak ukatu ziren. Auzipetuei ez zieten beraien errugabetasuna epaitegi aurrean eramanen. Espainiako Auzitegi Nazionalean epaileen artean ez zegoen inpartzialtasunik. Eta zigorrak neurrigabeak izan dira". Urritzolak gaineratu duenez, "Nafarroa zen auziaren justizia eremu naturala, eta hasieratik hemendik atera zen. Espainiako Auzitegi Nazionalean, Gorenean eta Konstituzio epaitegian ez dugu eskatzen genuen justiziarik jaso. Eskatzen genuen justizia horrek Europako auzitegiaren eraman gintuen". Urritzolak nabarmendu duenez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jo zuten "halakorik berriro inon eta inori ez gertatzeko. Pertsonen eta kolektiboaren eskubideak ukatuak ez izateko, Estatuak duen indar hori desagertzeko".

Esker ona

Erabakia ezagutu ondoren, "zapora garrantza" gelditu zaiela azaldu du Urritzolak, "Europak erantzunen zuela uste genuelako. Defentsek aurkeztutako argudioei ez diete erantzun. Horregatik, triste gaude: hasieratik eskatzen genuen justizia ez dugu lortu".

Hala ere, "urte hauetan guztietan izan dugun justizia bakarra gure defentsek egindako lana eta Altsasuren, Nafarroaren, Euskal Herriaren, Estatu hainbat herriren eta munduko leku guztietako jendearen elkartasuna izan dira. Horrekin geratzen gara", esan du Urritzolak. "Eta pentsatzen dugu elkartasun horrek beste kasuendako balioko duela. Guk beste kasuei elkartasuna adieraziko diegu". Jasotako elkartasunagatik eskertuta daude biak. "Horregatik, gu eta gure seme-alabak bizitzen segitzen dugu", Urritzolak esan duenez. Ramirez de Aldak esan duenez, "ibilbidea bukatu da, bai. Gauza hauek fisikoki bukatzen dira. Baina guretako betirako dira. Hainbeste elkartasun jaso dugu. Pertsonak ezagutu ditugu. Beste injustizia batzuk ezagutu ditugu. Hitzaldiak eta partekatu ditugu. Hain polita, hain ederra... Ez da alferrik izan. Eta horrek asko irauten du".

Zigorrak

Altsasuko auzian zigortutako zortzi auzipetuak kalean daude, lanean edo ikasten. Edota biak egiten. Bakoitzak jaso zuen zigorraren arabera, batzuen eta besteen egoera desberdina da. Ainara izan zen kartzela zapaldu ez zuen auzipetu bakarra, nahiz eta hainbat urtez auzitegian sinatzera joan beharra izan eta bestelako neurriak ezarri zizkion. Eta gerora ere auziak bizitza baldintzatu izan dio. Esaterako, oporretan atzerriko herrialde batean ez zioten sartzen utzi.

Inñakik hiru urte eta erdiko zigorra jaso zuen. Espetxetik pasa eta zigorra bete duen lehen auzipetua da. Joan den urteko lastailaren 4tik aske da. Ramirez de Aldak azaldu duenez, gainontzeko auzipetuei "eskumuturrekoak oraindik libre ez direla gogorarazten die egunero". Egoera horretan daude Aratz, Adur, Jokin, Oihan, Jonan eta Julen. Aske geldituko den hurrena Aratz da, garagarrilean beteko du zigorra (lau urte eta bi hilabete). Gainontzeko bostak erabat aske gelditzerako denbora pasako da. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 2024ko maiatzean beteko dute zigorra (aurreneko biek zortzi urte eta erdi eta atzenak bederatzi urte eta erdi). Eta Jonanen eta Julenen zigorra (zazpi urte eta erdi) 2025eko lastailan bukatuko da.

Tramite telematikoak euskaraz egiterik ez

Administrazioetan online tramiteak euskaraz egiteko aukera eskatu dute Parlamentuan

SAKANA

Lehendik bazegoen aukera, baina pandemiak orokortu egin du administrazioaren aurrean tramiteak elektronikoki egiteko aukera. Nafarroako Gobernu, mankomunitate, udal eta bestelako administrazioen aurrean tramiteak online egin nahi dituzten euskaldunek, ordea, ez dute hori euskaraz egiteko aukerarik opatzen. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) zuzendaritzako kide eta Berako alkate Aitor Elexpuruk eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiko Agurne Gaubekak azaldu dutenez, "Nafarroako administrazioarekin herritarrek 1.434 tramite telematiko egin ditzakete gaur egun, eta horietatik 334 tramitek (%23,29) soilik eskaintzen dute euskaraz egin ahal izateko aukera". Gaineratu dutenez, "udalek eta toki erakundeek egin ditzaketen tramite telematikoaren kasuan askoz larriagoa da egoera, 778 tramite egin baititzakete, eta horietatik 20 baino (%2,57) ezin baitira egin euskaraz".

Nafarroako Parlamentuan, Herritarrekiko eta Erakundekiko Harremanetarako batzordean herenegun egindako agerrialdian Elexpuruk eta Gaubekak Nafarroako Gobernuari "egoerari konponbidea jartzea eta tramiteak euskaraz egin ahal izan direla bermatzea" eskatu zitoten. Horretarako, bi eskaera egin zituzten: "Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoetako egoitza elektronikoki tramiteak zein bestelako jarduerak euskaraz egin ahal izan direla bermatzea, eta herritarrekiko zerbitzu guztietan euskarazko zerbitzua berdintasunean bermatzeko langile elebidunak ezartzea". Egungo egoera "euskara erabili nahi duten herritarrekiko eta udalkekiko gutxiespena nabarmena" dela nabarmendu zuten.

Korrikaren 22. edizioak bitan bisitatuko gaitu

Apirilaren 2an, larunbat goizaldean, ibarra zeharkatuko du, eta apirilaren 5ean, astearte arratsaldean, Etxeberri eta Errotz artean ibiliko da. Km-ak erreserbatzeko aukera otsailaren 1ean zabalduko da: 946 464 000 edo 'nafarroa@korrika.eus'

SAKANA

Aurtengoa 22. Korrika izanen da. Euskararen aldeko lekukoa eskuz esku ibiliko da martxoaren 31ko 16:30etik apirilaren 10ko 12:30era arte, Amurrio eta Donostia artean. AEK-k antolatutako errelebo lasterketa Arabako Lautadatik Sakanara apirilaren 2an, larunbatean. 22. Korrika 02:40 Ziordiar iritsiko da eta ibar guztia zeharkatu ondoren, Urritzolatik eta Errotz pasata Oskiatetik 07:43an joanen da. Korrikaren bigarren bisita apirilaren 5ean, asteartearekin, izanen da. Zuzarrate mendatea jaitsi eta Etxeberri, Irurtzun, Izurdiaga eta Errotz zeharkatuko du euskararen aldeko ekimen erraldoiak, 16:00etatik 16:32ra izanen da.

AEKtik jakinarazi dutenez, ibilbidearen zehetasunak (ordutegiak eta beste) eta ekimenaren beraren unean-uneke egoera gailu adimendunetarako Korrika aplikazioaren bidez kontsultatu ahaliko da. AEK-ko kideek jakinarazi dutenez, hainbat berrikuntza ditu, esaterako, bilatzaile hobetua eta estaldura arazoak ekiditeko sistema berria, kasu. Aplikazioa eskuragarri dago dagoeneko Android eta IOS sistema eragileen dendetan. Osa-garri moduan, ibilbide osoa he-



Lekukoa eskuz esku ibiliko da. ARTXIBOA

rrika eta eskualdeka ere badago ikusgai.

Euskararen eta AEK-ko euskaltegien aldeko errelebokako lasterketa erraldoiaren 22. edizioak *HitzEkin* leloa du. AEK-ko kideek azaldu dutenez, leloak honako esanahia du: "hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenez eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimentutik ekin-tzara, praktikara, jauzi egingo dutenak".

22. Korrika Sakanan

Eguna	Herria	Ordua
Apirilak 2	Ziordia	02:49
	Olatzagutia	03:08
	Altsasu	03:32
	Urdiain	04:00
	Iturmendi	04:16
	Bakaiku	04:24
	Etxarri A.	04:52
	Lizarragabengoa	05:18
	Arbizu	05:25
	Lakuntza	05:37
	Arruazu	05:51
	Uharte Arakil	06:06
	Irañeta	06:25
		06:30
	06:34	
	06:39	
	06:44	
	06:48	
	06:53	
	06:58	
	07:03	
	07:07	
	07:12	
	07:19	
	07:24	
	07:30	
	07:36	
Apirilak 5	Etxeberri	16:00
	Irurtzun	16:06
	Izurdiaga	16:19
	Errotz	16:26



Hainbat lakuntzar atzo San Saastin ermitara erromerian joan ziren.

San Saastin festek asteburua aurretik dute Lakuntzan

Herenegun hasitako neguko festek segida dute asteburuan Lakuntzan

LAKUNTZA

Lakuntzako neguko festak has-teko etxajua Rita Torrico Muniz zinegotziak piztu zuen herenegun. Ondoren, piperropil lehiaketa jokatu zen. Blanca Esther Andueza, Tania Ganboak, Mari Carmen Maizak eta Jone Floresek osatu zuten epaimahaia. Lehiaketara aurkeztutako hamar piperropil aurkeztu ziren. Cristina Razkinek irabazi zuen. Bigarren Mila Reparaz izan zen eta hirugarren Malen Arraiza Soto. Atzo San Sebastian ermitara erromerian joan ziren hainbat lakuntzar eta han auzatea izan zuten. Elizan izandako elizkizunaren ondoren beste bat. Txikien danborrada, Elai Alai taldea eta Alkate dantza izan ziren. Festak direla eta, Lakuntza erdigunea trafikorako itxita dago igandeko 20:00ak arte. Autobus geltokia Sakanako Mankomunitatearen egoitzaren parean dago egunotan.

Egitaraua

Ilbeltzak 21, ostirala

- 11:30-13:15 Puzgarriak.
- 13:00 Auzatea.
- 15:30-17:45 Puzgarriak.
- 18:15 Dantza modernoa.
- 19:00-21:30 Oihan Vegarekin dantzaldia.
- 20:00 Auzatea.
- 21:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 22, larunbata

- 12:00 Erraldoiak.
- 13:00 Auzatea eta Sakanako Trikitilariak.
- 18:30-21:30 Trikidantz taldearekin dantzaldia.
- 19:30 Buruhandiak.
- 20:00 Auzatea.
- 21:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 23, igandea

- 13:00 Aizkolariak, plazan.

Bakaikuko eta Iturmendiko San Anton kofradiak bilduko dira

Dorraon eta Urdiainen ez da topaketarik izanen; Bakaikun larunbatean eta Iturmendin igandean

BAKAIKU / ITURMENDI

San Anton eguna astelehenean izan zen, ilbeltzaren 17an. COVID-19 gaitzagatik Dorraoko San Anton kofradiak aurten ere ez da elkartuko. Bakaikuko sanantondarrak larunbatean elkartu-

ko dira, baina pandemiagatik egitaraua murriztuko dute. 12:30ean hildako kofradeen aldeko meza izanen da elizan. Ondoren batzarra izanen dute eta han karguak berrikuntza dituzte. Iturmendiko San Anton kofradia

domekan 10:30ean elizan elkartuko da. Hildako kofradeen aldeko mezaren ondoren apaizaren etxera joanen dira, han kofradiaren batzarra egiteko. Baja edo altarik izan den argitu eta diru kontuak egunean jartzearekin batera, kofradiako ardurak banatuko dituzte. egitekoak despedituta, Aritzaga elkartean anai-diaren bazkaria izanen da. San Anton eguna astelehenean izan zenez, Urdiainen hildako kofradeen omenezko meza joan den domekan egin zuten.

Gazte asanbladak urteurren bikoitza ospatuko du aurten

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladako (EGA) kideak urte lanpetua dute aurretik, urteurren bikoitza ospatuko baitute: gazte erakundearen 40. urteurrena eta gaztetxearen 15. urteurrena. Horregatik, EGAKo kideek urte guztirako egitaraua prestatzea erabaki dute. Azaldu dutenez, "bizi dugun egoera dela eta urte guztiko egitaraua aurkeztea zai-

la denez, gaur apirilera artekoak aurkeztuko ditugu". Gaineratu duenez, "urtean zehar data esanguratsu batzuk finkatu ditugu eta horien berri ere emanen dugu".

Gaur, gainera, EGAREN eta bi gaztetxeen historia biltzen duen dokumentalaren aurrerapena ikusteko aukera izanen dute. Ondoren, 21:00etan, akustikoan aritzeko, oholtzara Fran Urias, Armo, Xanet, Juanpa Agirre eta Hanot etxarriarrak jotzera eta kantatzera igoko dira.



Industrialdearen eta etxeen artean dagoen espazioa hartuko du urbanizazioak. ARTXIBOA

Herria hegoaldetik zabalduko da

Urbanizazio berriak 10.600 metro karratu inguru izanen ditu eta familia bakarreko 39 etxebizitza hartuko ditu. Administrazio lanak egin ondoren, udalak urbanizazio lanen deialdia lastailerako egin nahiko luke. Gauzak ongi urte bukaeran hasiko lirake lanak

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Irurtzundarren etxebizitza premia ezagutzeko udalak inkesta zabaldu zuen herritarren artean joan den neguan. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, etxebizitzaren inguruko bi eskaera mota daude Irurtzunen: "familia bakarreko etxebizitza baten bila dabiltzan familia helduak eta etxebizitza bat eskuratu nahi dutenak". Aurreneko eskaerari epe ertain eta luzean erantzuna emateko, Irurtzunen urbanizatutako lurrik ez dagoenez, Irurtzungo Udalak hirigintza araudian aldaketa egin du. Horrek herriarren hegoaldeko 10.689,2 m² urbanizatzea ekarriko du.

Larrazak azaldu duenez, "herrian egin zen azken promozioa duela 20 urtekoa da. Jendea beste aukera batzuk begiratzen ari da, eta udaletxera partzelez galdezka etortzen da. Eta pandemiarekin gehiago izan dira herriarren etxera galdezka etorri direnak. Jendea ondoko herrietara begira jarri da. Aukera gehiago dute lur sail bat edo etxe bat eskuratzeko. Irurtzunen jendea finkatzeko, urbanizazioa egitea erabaki dugu".

Alkateak azaldu duenez, erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean asteartean argitaratu ondoren, urbanizazioa hartuko duen lurjabe guztiekin harremanetan jarriko da udala, beharrez-

ko administrazio bidea egiteko. Irurtzungo Udala ere bada lurjabeetako bat. "Horretan urte erdia emanen dugu. Gauzak ongi lastailerako urbanizazio lanak emanda egonen lirake eta lanak urte akaberarako hasiko lirake", azaldu du alkateak. Lanek 756.000 euroko aurrekontua dute. Ordurako saihebidetako lanak despedituta leudeke, eta udal agintariak esan duenez, urbanizazioarekin "ingurua txukundu" litzateke.

Urbanizazioa

Lur eremu hori egiten hasi berri diren saihebidetaren, Intxaurreta kalearen eta Lizarra kaleko 20 eta 24 zenbakien arteko

espazioa da. Udalak aurreikusitakoaren arabera, familia bakarreko etxebizitza (isolatua, binakatua edo atxikia) gutxienez 200 m²-ko lur sail batean egon beharko du eta, gainera, partze-laren aurrealdetik espazio publikora gutxienez 5 m-ko luzera izan behar du. Lur sail horren barruan etxebizitzak, gutxienez, 120 m²-ko azalera izan beharko du. Eraikinek beheko solairua eta altuera bat izan behar dute.

Aurreikusitakoaren arabera guztira 39 familia bakarreko etxebizitza eraikiko lirake: 12 Lizarra kalean, 10 saihebidetako parean eta gainontzeko 17ak lur sailaren barruan. Udalak zehaztutakoaren arabera eraikinek antzeko itxura izan beharko dute diseinu eta materialen aldetik. Bestalde, Lizarra eta Intxaurreta kaleak lotuko duen kale berri bat egingen da.

Hizketan

Irurtzundarren pisuen eskaerari erantzuna emateko, Irurtzungo Udala Nafarroako Gobernua-rekin hizketan ari da. Trinitate kalean bidezainenak ziren dozena bat etxebizitza daude, eta haiek alokairuko merkatura ateratzea litzateke helburua. Alkateak aurreratu duenez, "gizarte alokairukoak lirake. Nasuinsak zaharberri eta kudeatuko litzuzke". Larrazak gaineratu duenez, "gaia motel doa", eta horren arrazoia eman du: "Nasuinsa gizarte alokairurako Nafarroa guztiko premiak aztertzen eta lehentasunak identifikatzen ari da. Hori egin ondoren jarriko dira gurekin harremanetan". Aipatutako pisuen parean dagoen bidezainen partzela Irurtzungo Udalak eskuratzeko prozesua ere motel doala gaineratu du alkateak.

Plazaola bide berdea hobetzen laguntzeko, inkesta

Plazaolak Europako Trail Gazers proiektuan parte hartzen du kontinenteko beste zazpi natura ibilbiderekin batera. Ibilbideak garapen eragile garrantzitsuak izan daitezke zeharkatzen dituzten eskualdeetan; aukera eman baitezakete lurraldeak modu jasangarrian suspertzeko. Proiektuaren bidez, bide horietan egindako inbertsioek gizartean eta ekonomian duten eragina aztertu nahi dute. Horregatik, Plazaola turismo patzuergoak datu bilketari ekin zion 2020an. Orain Plazaolaren inguruan bizi diren familien gastua ezagutu nahi dute, eta, horregatik, inkesta anonimo labur bat erantzuteko eskatu dute. Batetik, etxeetako gastu orokorren gutxi gorabeherako kopurua jakin nahi dute, eta, bestetik, gastu horretatik zenbat geratzen den Plazaolaren eremuan. Emaitzak lagungarriak izanen dira ikertzeko ibilbideek zenbateraino laguntzen duten tokiko ekonomia garatzen, hobetzeko aukerak aztertze aldera.

Etxarri Aranazko gaztetxokoak bihar zabalduko dituzte atekak

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, gaztetxokoak larunbatean zabalduko dituzte atekak. Aurreko ikasturtean, 2020-2021ean, COVID-19 gaitzak eragindako pandemiagatik gaztetxokoak itxita egon zen. Ateak honako ordutegian izanen ditu zabalik gaztetxokoak: larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandetan 17:00etatik 20:30era. Udalak zerbitzua zabalteko hiru begirale kontratatuko deialdia egin zuen. Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, gaztetxokorako sarbidea 11 eta 16 urte arteko gaztetxoek izanen dute. Beti ere, aurretik izena emanda badute. Horretarako, adin tarte horretako gaztetxoek gurasoei jakinarazpena bidali die Etxarri Aranazko Udalak. Izena emateko edo zalantzak argitzeko udaletxetik bulego ordutegian pasa, 606 239 008 telefonora 09:00etatik 14:00etara hots egin, edota kultura@etxarriaranatz.eus helbide elektronikora idatzi behar da.

Arakilgo Udalaren kokapen proposamena

Foru administrazioak Irurtzungo Trinitate kalearen 19an 7.301,77 metro karratuko azalera du. Han, besteak beste, Errepideen Mantentze Zerbitzuaren kamioiak eta istripua izan duten ibilgailuak gordetzen ditu. Irurtzungo Udalak lur saila herriarendako nahi du, behar bezala urbanizatu eta herrian txertatzeko. Udal ordezkari irurtzundarren nahiaren berri badute foru administrazioan.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Errepideak Zaintzeko Zentroaren eta Nafarbide enpresa publikoaren egoitza Etxeberriko markesinaren eta gatzontziaren ondoan jarri nahi ditu.

Arakilgo alkate Oihana Olaberria Jakak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuak gaia geldirik du. Aurtengo aurrekontuan ez du sartu lanak

egiteko diru sailik. Gaiari jarraipena egiteko Bernardo Ziriza Perez kontseilariarekin eta herri lanetako zuzendari nagusiarekin egon ginen eta, esan zigutenez, 2023rako aurreikusten dute lanekin hastea". Beraz, aurten Lurralde Kohesiorako Departamentua proiektua lantzen ariko da.

Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuari proposatu dio

mantentze zentroa Etxeberri parean egin beharrean Etxarrengo industriale berriaren kokatzea azpiegitura. "Kokapen askoz hobea iruditzen zaigu. Handia da, loturak eta beharrezko guztia eginak daude. Abantailak ikusten dizkiogu aukera horri. Proposamena aztertu behar dute. Kokapenaren eta proiektuaren inguruan zerbait aurreratzen dutenean hots egingen dutela esan ziguten. Eta zain gaude".

Dastaketa bertako alubiak ezagutarazteko

Arakilen berreskuratutako alubiak ezagutzera emateko dastaketa antolatu zuen udalak abenduan. Hiru moten balorazio oso ona izan zen. Udalak uste du lekaleen ekoizpen ekologikoa lehen sektorea eta gastronomia bultzatzeko aukera egokia dela

ARAKIL

Hiru alubi eltzekada prestatu zituen Etxarrego Iratzar jate-txeak abenduaren 15ean. Haie-tako bakoitzean babarrun mota bana zegoen. Hiru alubi barie-tate horiek Arakilgo Udalak sustatutako Bertako Nekazaritza Barietateen berreskurapen proiektuaren bidez berriro ekoiz-tu dira. Arakilgo Udalak Sakanako hainbat nekazari, herritar, dendari eta udal ordezkari gon-bidatu zituzten alubi horiek dastatzera eta ezagutzera.

Parte hartzaileek indibabab motak probatu eta zaporea, itxura, eta azalaren eta mamiaren ezaugarriak kontuan hartuta baloratu zituzten. Eta ebatzi zuten Eper Begi mota oso ona izan zela eta bikainak, berriz, Negrica eta Ttoporra. Dastaketak babarrun mota bakoitzaren ezaugarri agronomikoak eta haiek lantzeaz arduratu diren nekazari eta herritarren iritziak parte-katzeko aukera eskaini zuen.



Eper begi, Negrica eta Ttoporra alubiak dastatu zituzten. ARAKILGO UDALA

Ekoizpen ekologikoa

Babarrunak, txitxirioak, dilis-tak... guztiak lekaleak dira. Oihana Olaberria Jaka alkateak esan duenez, "alubia betiko laborea izan da Sakanan, elikagai moduan oso baloratua eta etxal-

de askoren ekonomiaren sostengu izan dena. Gaur egun ere, gure dietan hain beharrezkoak diren landare proteinen iturri dira lekaleak". Hala ere, Sakanan lekaleen ekoizpena ia erabat galdu dela nabarmendu du, "bitartean, merkatuan gertuko lekale ekologikoen eskariak gora eta gora egiten du, haien prezioa nekazariarendako erakargarria bezain duina eginez".

Horregatik, alkateak "nekazaritza proiektu iraunkor eta errentagarriak sustatzeko, nekazaritza lurren emankortasuna zaindu eta errotazioak egiteko" proposatzen du. Sakanako gastronomiaren balioa aitortzeko ere "berebiziko aukera eskaintzen dute lekaleak. Are gehiago bertako barietateak izanik, oso preziatuak baitira eta, gainera, gure lur, klima eta baldintzetara egokituak daudelako". Olaberriaren iritzi lekaleei "behar duten balioa ematea da erronka, ekoizpena bultzatu eta nekazaritza ekoizpenak dibertsifikatzea sustatuz. Lanke-ta hori estrategikotzat jotzen da Arakilen eta Sakanan, eta horretarako prest ditugu gure tokiko babarrun paregabeak".



Inasaren memoria berreskuratzen lagundu dutenetako batzuk. UTZITAKOA

Dokumentala eta liburua Inasaren memoria jasotzeko

Udalak herriaren bizia eraldatu zuen enpresari buruzko hamar lekukotza jaso zituen joan den urtean

IRURTZUN

Herria guztiz eraldatu zen Inasarekin. Horregatik, Irurtzongo Udalak enpresa haren memoria jaso eta herriko belaunaldi berriei haren berri ematea egoki jo du. Horretarako, Inasa zabalik izan zen garaiko langileen, senideen, sindikalisten eta udal ordezkarien oroitzapenak bildu ditu, haien ahozko memoria udal artxiboan gordetzeko. Hamar lekukotza horiek jasotzeaz Labrit Ondarea enpresa arduratu zen joan den urtean. Bildutako guztiari forma emanen dio aurten enpresak eta herriko hurbileko historiaren berri irurtzundarren eskura dokumental eta liburu modura iritsiko da. Haietan, besteak beste, honakoak jaso dira: enpresaren, langileen eta beste erkidego batzuetako familien etorrera, langileek lan baldintza hobekitzeko egindako borroka, eta industria deuseztatzeko prozesua eta haren ondorioak.

Lan aldarrikapenak eta langileen borroka izan ziren enpresaren ibilbidearen ezaugarri nagusiak. Batzarrak, soldata igotzeko eskaerak, material higienikoa, galdaketan ziprirtinatik babesteko arropa eta, adibidez, greban zeuden beste enpresa batzuekiko elkartasunak markatu zuten frankismoaren garaia. Sindikatuak iritsi zirenean, honakoak izan ziren eskaerak: soldata igotzea, antzinatea aitortzea, lan egutegi-tatik larunbatetako gaua kentzea, joan-etorrietarako autobusak, bizi aseguruak, gaixo

baimenak, lan baldintzak hobetzea... Azken batean, Irurtzongo belaunaldi berriek ere lan aldarrikapen ekintza horien berri izan dezaten nahi du udalak.

Lantegiaz

Irurtzun Arakilgo kontzejua zen eta 400 biztanle zituen, 1956an Inasa enpresa herrian ezarri zenean. Diru gehiena Huarte enpresa taldeak jarri zuen. Ondorioz gizarte, ekonomia eta hirigintza aldaketa izugarria bizi izan zuen herriak. 1962an Reynolds International multinazionalaren parte bihurtu zen. Estrusio eta galdaketa ontziak handitu edo ontzi berriak eraiki ziren. Errepide nagusian, "lanerako jendea behar da" zioen kartel bat zegoen. Soldata asteka kobratzen zen, eskura, 252 pezeta zituen gutun azal marroi batean.

Herria modu esponentzialean hazi zen. Gaztelatik, Extremaduratik, Andaluziatik... ehunka lagun joan ziren lana bilatzera. Hazkunde horren hasieran, iritsi berriak zirenek arazoak zituzten lo egiteko leku bat aurkitzeko, eta etxe partikularretan bizi ohi ziren. Biztanleriaren hazkundeak Irurtzunen urbanismoa aldatu zuen; herriak ez zuenez hirigintza planik. Irurtzun 1.500 biztanle izatera pasa zen, fabrikaren aurretik zegoen biztanle kopurua ia lauokituz. XX. mende bukaeran Reynoldsek lantegia utzi zuen eta ondoren hainbat enpresen eskutik pasa zen, 2012an itxi arte.

DUELA 25 URTE...



Ihoteak berreskuratu nahian

1936ko estatu kolpearen ondorioetako bat inauteriak ospatzeko debekua izan zen. Uhartearrek 65 urte zeramatzen ihoteak ospatu gabe. Aspaldiko idatzi batzuen bidez herriko ihote egunaren berri jaso zuten eta garai bateko inauteria berreskuratze nahia piztu zen. Ubertear gazte talde bat elkartu eta lanean hasi zen, ohitura zaharra berreskuratze asmoz. Iraun zuen ohitura bakarra kintoena izan zen.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 3. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Doneztebe 1-0

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 2. MULTZOA	
1 Burladés	30
9 Lagun Artea	19

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Zirauki - Lagun Artea (Zirauki)

Lagun Arteak Ziraukin du partida

Donezteberen kontra garaipena lortuta, Lagun Arteak Zirauki du aurkari.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

16. JARDUNALDIKO EMAITZA
Oberena - Altsasu 4-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA	
1 Mulier	45
10 Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

12:30 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Altsasuk arerio zuzena du: Berriozar

Altsasu eta Berriozar taldeen partida bi arerio zuzenen artekoa izanen da.

FUTBOL PREFERENTEA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Ondalan 1-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Injerto	40
14 Etxarri Aranatz	16

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Etxarri - Injerto (San Donato)

Etxarrik Injerto liderra hartuko du

Etxarrik jaitsiera postuak atzean utzi nahi ditu eta Injertok lidergoa mantendu.

FUTBOL ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Baztan B 6-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA	
1 Aurrera	38
3 Altsasu	31

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAREN AZKEN ASTEBURUAN

Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Altsasuk atsedean jardunaldia du

Sailkapenean bigarrenak dira altsasuarrak, eta garaipenaren bidean segi nahi dute.

Errepideetako ikuskizuna has dadila!

TXIRRINDULARITZA Igandean hasiko da profesional mailako 2022ko txirrindularitza denboraldia. Aurten lau txirrindulari profesional sakandar izanen ditugu, zortzi txirrindulari afizionatu, lau kirol zuzendari eta taldeetako staffetan hainbat langile

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Ikuskizuna hastear dago. Igandean Valentzian jokatu den Clàssica Comunitat Valenciana klasikoak emango dio hasiera profesionalen mailako 2022 denboraldiari. Talde guztiek makineria prest dute eta hastear dagoen denboraldia behar bezala prestatzeko kontzentrazioetan murgilduta egon dira.

Juanjo Oroz Ugalde eta **Pablo Urtasun Fernandez** urdiaindarrak zuzendari dituen Kern Pharma taldeak abenduan egin zuen kontzentrazioa, Altean. Bertan izan zen aurten talde horretan profesional gisa debutatuko duen **Igor Arrieta Lizarraga**. Taldea egunotan La Vila Joiosan dago kontzentratuta, eta asteazkenean bertan egin zuten denboraldiko aurkezpena. Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionalak azaroan egin zuen aurre denboraldiko topaketa, Iruñean. **Josu Etxeberria Azpilikueta** iturmendiarrak bere bigarren profesional denboraldiari ekingo dio aurten, eta ikasten jarraitzeko eta saltoa emateko prest dago. Bestalde, ilbeltzaren hasieran aste bateko egonaldia egin zuen Euskaltel-Euskadi Fundazioak Altean, **Jorge Azanza Soto** kirol zuzendaria buru zela. Pozik dago altsasuarrak,



Igor Arrieta Lizarragak aurten profesional mailara salto egin du. KERN PHARMA

denboraldia hasteko gogotsu, sortu duen taldearekin konfiantza handia duela.

Movistar Team taldea Almerian dago kontzentratuta. Bi txirrindulari sakandar daude bertan. **Imanol Erbiti Ollo** hiriberriarrak 17 urte daramatza taldean, eta tropeleko talde gizon preziatuenetako bat jarraitzen du izaten. Bestalde, aurten Movistarrrera, etxera itzuli da **Gorka Izagirre Insausti** ziordiarra, Astana taldetik bueltan. Ilbeltzaren 20an egin zuten taldearen aurkezpena, Almerian bertan.

Hutsune garrantzitsu bat dago: 10 urtez taldeko kirol teknikari izan zen **Jose Luis Arrieta Lujanbio** uharte arakildarrarena. Bukatzeko, Israel Premier Team taldea Tossa de Marren dago kontzentratuta, Chris Froome liderra buru dela, eta han dago taldeko kirol zuzendarietako bat den **Oscar Guerrero Zelaia** altsasuarrak. Denboraldirako asmo onak ditu taldeak. Joan zen urtera arte taldeko prestatzaile izandako **Xabier Zabalo Imaz** olaztiarrak badirudi beste bide bat hartu duela.

Beraz, lau txirrindulari profesional sakandar lehiatuko dira hastear dagoen denboraldian: Igor Arrieta, Josu Etxeberria, Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre. Azken orduko aldaketak egon ezean, Pablo Urtasun, Jorge Azanza eta Oscar Guerrero kirol zuzendari lanetan ariko dira, taldeetako staffetako beste hainbat teknikari, masajista, mekanikari eta administrari sakan-darrekin batera.

Afizionatuen mailako aldaketak

Afizionatuen mailan, azken orduko aldaketak egon ezean, zortzi sakandar izanen ditugu tropelean. **Iker Mintegi Claver** altsasuarrak eta **Ailetz Lasa Lizarraga** ziordiarrak Laboral Kutxan jarraitzen dute –otsailaren hasieran ekingo diote denboraldiari, Iparraldean–, **Iker Cerviño Pueyo** irurtzundarrak Telcom taldean segitzen du eta **Andoni Ocaña Goikoe-txea** urdiaindarrak Ciclismo Riojano taldean. Aldiz, **Jon Gil Velaz** lakuntzarrak Lizartetik Gomur-Cantabria Infinita taldera egin du salto. Rural Kutxa-Alea taldean aldaketak daude: **Mikel Olaetxea** unanuarrak jarraitzen du, **Aitor Alberdi Garziandiak** utzi egin du, eta Aralar Txirrindularitza Taldeetik **Jon Erdozia Gonzalez de Pedrosok** eta **Martxel Etxeberria Azpilikueta** Rural Kutxarekin debutatuko dute afizionatuetan. Aipatzekoa da **Alex Unzilla Aldasoro** etxarriarra izanen dela Rural Kutxa-Alea afizionatuen mailako entrenatzailea. Bestalde, Burunda klubean trebatutako Korteko **Hugo Aznar** afizionatuetara pasa da Lizarte taldearekin, eta **Sergio Lopezek** Telcom taldearekin egin du salto amateur mailara.

Binakakoan erabakitze asko dago oraindik

PILOTA Hamargarren jardunaldian jokoan dauden puntuak ezinbestekoak dira bikote guztiendako

Binakako Pilota Txapelketako ligaxka despeditzeko bost jardunaldi geratzen dira eta oraindik ez dago ezer erabakita. Bikote guztiek dute finalerdietara sailkatzeko aukera. Altunak eta Martijak Elezkano eta Zabaleta

liderrak izanen dituzte aurkari larunbatean Labriten, bi atzelari arakildarren arteko borroka izanen den partidan. Bi bikoak galtzetik datoz, eta puntua nahi dute. Ezkurdiak eta Tolosak Irribarriaren eta Rezustaren

kontra jokatu dute igandean Bilbon, eta Altuna-Martijari irabazi eta gero, euren hirugarren puntua lortzeko animotsu daude.

Bakaikoaren itzulera

Joanes Bakaikoa Promozioako Binakakora itzuli da COVID-19 gaitza gainditu eta gero. Elizegirekin batera, 22 eta 13 hartu zituzten mendean Alberdi eta Uriondo. Liderrak dira (8 puntu), eta larunbatean, Labriten, Zubizarreta-Eskiroz izanen dituzte arerio.



Joanes Bakaikoa. BAIKO

Krosak 50 urte Dantzalekun

ATLETISMOA Abdelkader Al Ghamak eta Alicia Carrerak irabazi zuten 36. Altsasuko Krosa. Duela 50 urte Dantzalekun lehen krosa antolatu zutenak omendu zituzten, eta goizeko Altsasuko Kros Herrikoian Juan Carrascal eta Lorea Burgete gailendu ziren

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Hotz, oso hotzesnatu zen igandea, eta pista eta ibilbidea izoztuta zirela hurbildu ziren Altsasuko Kros Herrikoian parte hartu zuten korrikalariak Dantzalekura. Baina atletak ez ziren kikildu, eta goiz osoa iraun zuen atletismo festa handia bilakatu zen Dantzaleku. Lasterketa guztiak kontuan hartuta, 630 korrikalari hartu zuten parte Altsasuko Kroseko zirkuitu mitikoan.

Kros Herrikoia, goiztiarrena Altsasuko Kros Herrikoia 9:45ean zen hastekoa, eta termometroak 0 azpitik 6 gradu jasotzen zituen korrikalariak ia 6 kilometroko proba egitera abiatu zirenean (5.960 m, zirkuituari hiru itzuli). Aurretik, minutu bateko isilunea gorde zen azaroan zendutako Dantzaleku Sakana klubeko bazkide, korrikalari eta atletismo sustatzaile sutsua zen Candi Arnanzen alde. Lasterketari hasiera emateko duela 50 urte Altsasuko lehendabiziko krosa iragartzeko erabili zen pistola erabili zuen antolakuntzak. "Jose Luis Vergara "El Txipi" epaile eta kronometratzailearena zen, eta haren familiak, Vergara-Tanco familiak, Dantzaleku Sakana klubari eman dio" azaldu du Dantzaleku Sakana klubeko Peio Bergarak. Kros herrikoian 48 korrikalari hartu zuten irteera, eta horietatik 38 sailkatu ziren, hotzari behar bezala aurre egin eta zirkuitu ederrari hiru itzuli emanda.

Ibilbidea Dantzalekuko pistari hasi, futbol zelai zaharra zeharkatu eta Basoixin sartzen zen, buelta hartu eta Usolarrainen itzuli bat egin ondoren Dantzalekun despeditzeko. Haritzen arteko ibilbide politik bi salto zituen: enborrez osatutako bat,

eta fardo osatutako bestea. Lohi askorik ez zegoen eta zorua ohi baino gogorrago zegoen, tarteka izotza, baina sustraiez betetako zoruan adi egon behar izan zuten korrikalariak.

Juan Carrascal Morales santurtziarra izan zen azkarrena (21:49), Kevin Alves Piresen (Hiru Herri, 21:54) eta Gaizka Arbizu Armendarizen (Hiru Herri, 22:01) aurretik. Sakandarren artean, Felix Benjumea Motino izan zen lehena, sailkapenean zortzigarren. Emakumezkoetan Lorea Burgete Mikeo lekunberriarra iritsi zen lehena, Erkuden San Martin Gonzalez etxarriarraren (Dantzaleku Sakana, 28:08) eta Ainhoa Markinez Askargorta olaztiarraren (28:42) aurretik. Bi txapeldunak lehen aldiz aritu ziren Dantzalekun eta proba gogorra eta polita iruditu zitzairen.

PROBA GUZTIAK BATUTA, GUZTIRA 630 KORRIKALARI LEHIATU ZIREN DANTZALEKUKO ZIRKUITU MITIKOAN

ERRELEBOETAN PARTE HARTU ZUTEN 444 KORRIKALARIEK IKUSKIZUN POLITA ESKAINI ZUTEN

KROS HERRIKOIA ZERO GRADU AZPIAN JOKATU ZEN. BENJUMEA ETA SAN MARTIN, LEHEN SAKANDARRAK

Erreleboetan 444 korrikalari Bitartean Nafarroako Kirol Jokatuko Errelebo Mistoen jardunaldian parte hartu zuten 111 taldeetako 444 korrikalariak prestatzen ari ziren, 10:30etik 12:45 arte kategoriatan ezberdinetako lasterketak jokatu baitziren. Dantzalekuko pistatik aterata, Usolarrainen prestatutako zirkuituan izan ziren probak, eta erreleboko txanda aldaketak pistetan egin zituzten. 18 urtez azpian 10 talderen artean Hiru Herri gailendu zen eta 16 urtez azpian 9 talderen artean Hiru Herri A. 14 urtez azpian 26 talde aritu ziren, bi serietan banatuta. Lehen seriea Hiru Herri A-k irabazi zuen eta bigarren seriea, aldiz, Dantzaleku A-k. 12 urtez azpiko mailan 39 taldek hartu zuten parte eta 10 urtez azpikoan 27 taldek, baina bi maila hauetan probak ez ziren lehiakorrak izan, eta Nafarroako Atletismo Federazioak ez zuen sailkapenik egin. Dantzalekuko talderen bat lehen postuan sartu zen, klubaren eta senitartekoen pozerako.

Probek ikusle ugari erakarri zituen Dantzalekura. Jendea zirkuituan barna banatu zen, eta ez zen arazorik izan. Giro oso ona zegoen, eguzkiak tenperaturak goxatu ahala, are gehiago. Erreleboak bukatuta, 13:15 inguruan abiatu zen proba garrantzitsua: Altsasuko 36. Krosa, aldi berean Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa zena. Nafarroako atletariki onenak bildu ziren, lehen lau sailkatuek ilbeltzaren 30ean Jaenen jokatuko diren Espainiako Kros Luzeko Txapelketan parte hartzeko txartela lortuko zutelako.

Nagoreren lesioa Aurreikusitako moduan, 36. Altsasuko Krosa gogorra izan zen.

Sakandarrak Altsasuko Krosean

Altsasuko Krosa (9.800 m)

• Gizonak	
1. Abdelkader Al Gham	31:13
2. Jaouad Boualame (Nafarroako txapelduna)	31:59
18. Israel Arbizu	35:10
22. Jabi Gasanz	35:19
23. Ivan Sobreto	35:19
25. Mikel Astiz	35:44
46. Isidro Asurabarrena	40:27

• Emakumeak	
1. Alicia Carrera (Nafarroako txapelduna)	36:52

• 20 urtez azpiko gizonak (7.880 m)	
1. Abule Esteban	27:05

• 20 urtez azpiko emakumeak (5.960 m)	
1. Jihad Essoubi	23:19


Altsasuko Kros Herrikoia (5.960 m)

• Gizonak	
1. Juan Carrascal	21:49
8. Felix Benjumea	23:25
9. Asier Ansa	23:50
10. Imanol Guerrero	24:12
13. Ivan Gonzalez	24:48
16. Juan Luis Maiza	25:48
18. Tasio Garcia	25:57
21. Ismael L. de Goikoetxea	26:29
22. Xabi Martinez	26:30
24. Jon Lapuente	26:52
25. Juan Carlos Villareal	27:28
26. Fernando Larrea	27:50
28. Jantxo Azurmendi	28:17
30. Luis Angel Diaz	30:05

• Emakumeak	
1. Lorea Burgete	26:48
2. Erkuden San Martin	28:08
3. Ainhoa Markinez	28:42

Korrikalariak zirkuituari bost itzuli egin behar izan zituzten, guztira 9.800 metro osatzeko. 138 korrikalari hartu zuten irteera, ziztu bizian. Dantzalekun bildu ziren ikusleak harrituta zeuden korrikalariak eskainitako mailarekin. Ez da harritzekoa, Nafarroako onenak baitziren. Javier Nagore (Grupompleo) orain arteko Nafarroako txapelduna zen lasterketa irabazteko faboritotako bat. Hasieratik erritmo gogorra ezarri zuen, baina ustekabeak korrikalari iruindarrak arazoak izan zituen txorkatilan eta lehen itzulian proba utzi behar izan zuen.

Gainontzeko faboritoez zuten aukera alferrik galdu. Joan den urtean, 2021ean Altsasuko Kros Herrikoia irabazi zuen Abdelkader Al Ghamak (Grupompleo) sekulako lasterketa egin zuen eta proba irabazi zuen (31:13),



Isidro Asurabarrena, eskuinean, Altsasuko Kroseko proba.



Lorea Burgete, Kros Herrikoian.



Mikel Astiz ihabartarra, taldeari tiraka.



oba nagusian.



Txikienek dena eman zuten euren lasterketetan.



Jaouad Boualameri (A. Albacete) 46 segundo ateraz. Marcos Yanizek (At. Iranzu) osatu zuen podiuma (32:10). Sakandarren artean, Israel Arbizu Alberto etxarriarra (Hiru Herri) izan zen lehena, 18. postuan (35:10). Arbizuk aurreko postuetan sailkatzea "oso zaila" zela aipatu zuen, sekulako maila zegoelako, eta hala izan zen. Etxarriarrak ere Abdelkader Al Gham jo zuen fabrorito nagusia eta ez zuen huts egin.

Herritartasuna

Izan ere, Iruñean bizi den 27 urteko Abdelkader Al Gham marokoarrak irabazi zuen Altsasuko Krosa, baina herritartasuna ez duenez, ezin izan zuen Nafarroako Txapelketa irabazi. "Hiru urte daramatzat soilik proba herrikoietan aritzen, orain arte bizileku-baimena ez nuelako. Hau federatu gisa aritzen naizen nire lehen krosa da" zioen Al Ghamek, txapela buruan. Baina herritartasuna izan arte ezin du Nafarroako edo Espainiako Txapelketetarako puntuatzen. Altsasuko krosa "asko" gustatu zitzaio la nabarmendu zuen. Eroso aritu zen, gustura, eta Dantzalekun, Basoixin eta Usolarrainen hegan egin zuen.

Altsasuko proba "polita baina gogorra" izan zela nabarmendu zuen lasterketan bigarren baina Nafarroako txapeldun izan zen Jaouad Boualamek. Jatorriz marokoarra, 38 urte ditu eta 27 urte daramatza Tuteran bizitzen. Lehendabiziko aldiz irabazi zuen Nafarroako Txapelketa. "Azken unera arte borrokatu dut, duela zenbait urtetik Nafarroako Txapelketa lortu nahi nuelako. Bigarren, hirugarren... sailkatzen nintzen, baina ez nuen txapelketa lortzen, gaur arte. Txapelketa nire familiarendako da, bide honetan lagundu nauten guztien-dako" azaldu zuen.

Alicia Carreraren laugarrena

Emakumezkoetan Alicia Carrerak (Grupompleo) bere laugarren Nafarroako Txapelketa irabazi zuen, Altsasuko Krosa erraz irabazi eta gero (36:52). Ia bi minutu atera zizkion Vanesa Pachari (Hiru Herri, 38:44) eta Ainara Alcuazek osatu zuen podiuma (Hiru Herri, 39:04). Emakumezkoen proban Izaskun Beunza (Beste Iruña) eta Eneritz Karasatorre (Dantzaleku Sakana) ariko zirela espero zen, baina ez



Altsasuko kroseko aitzindariari omenaldi polita egin zitzairen.

Aitzindariari omenaldia

Igandekoa 36. Altsasuko Krosa izan zen, baina urteurren berezia zuen, lehendabiziko krosa duela 50 urte antolatu zelako, 1972. urtean. Lagun Onak elkarteak kuadrilla bati Dantzalekuko parajeko krosak antolatzeko aparteko tokia zela iruditu zitzaion eta lehen krosa antolatu zuten. Bete betean asmatu zuten. Ondoren Altsasuko Kiroi Elkarteak hartu zuen krosa antolatzearen ardura, eta beranduago Dantzaleku Sakana klubak. Dantzaleku Sakana Klubak urteurren berezia gogoan izan nahi zuen eta omenaldi txikia egin zien aitzindari guztiei, haien gertukoei eta lagunei. Kantatutako aureskua eskaini zitzaion, eta omendutako guztien izenean Felipe Perez de Villarrealen eta Candi Arnanzen alabek lore sorta jaso zuten. Omenaldi xumea bezain ederra izan zen, eta klubak bertan parte hartu zutenei eskerririk beroenak eman nahi dizkie.

Altsasuko Krosa urte luzez antolatzeaz gain, Altsasuko San Silvestrea -42 edizio ditu, Nafarroako beteranoena- eta Zubeziako Oinezko Lasterketa-Barricarte Oroimenezkoa -40. edizioa- antolatu izan ditu kuadrilla berberak eta Altsasun atletismoaren sustatzaile nagusiak izan dira. "Korrikalari izateaz gain, guztia egiten zuten: probak antolatu, epaile lanak, entrenatzaile lanak... Altsasuko atletismoan erreferente izan dira" nabarmendu du Dantzaleku Sakanak.

zen hala izan. "Zirkuitu irregularra da eta ezin da modu jarraian azkar korrika egin. Aurten gogorragoa izan da emakumeek lehendabiziko aldiz 10 kilometro egiten ditugulako. Eta, gainera, hiru enborrez osatutako salto bat zegoen, mortala zena" azaldu

zuen Alicia Carrerak. Bere asmoa lasai ateratzea eta gutxika erritmoa hartzea zen, baina gizonzkoekin batera atera zirenez, aurreikusitako baino erritmo azkarragoan aritu zela aipatu zuen, eta lasterketa guztian erritmo horretan aritu zela. 28 urteko txapeldunak aitortu zuen "oso gustura" egin zuela korrika.

Nafarroako Atletismo Federazioetik azaldu zuten Altsasuko Krosean sailkatutako lehendabiziko laurak Espainiako Txapelketetan arituko direla: Alicia Carrera, Vanesa Pacha, Ainara Alcuza eta Izaskun Olleta, emakumezkoetan, eta Abdelkader Al Gham, Jaouad Boualame, Marcos Yaniz eta Atarratze Rota, gizonzkoetan. Beste lau atletak -bi emakumezko eta bi gizonzko- Nafarroako federazioak berak hautatuko ditu.

AL GHAMEK IRABAZI ZUEN KROSA, BAINA BOUALAME IZAN ZEN NAFARROAKO TXAPELDUNA

ALTSASUKO KROS GOGORREAN 18. POSTUAN SARTU ZEN LEHEN SAKANDARRA, ISRAEL ARBIZU

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO
EGUERTIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

ALTSASU Gazte agenda:
Parti&Co jolasa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU *Conservando Memoria*
El Patio antzerki konpainiaren
antzezlan.

Josefina Arregi klinikako lagunak
elkartek antolatuta.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Irakurle kluba:
Nikolas Butler idazlearen *Algo*
en lo que creer liburua.
19:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Gazte
Asanbladaren 40. eta gaztetxearen
15. urtemugan eta dokumentalaren
aurkezpena. Ondoren, herriko
musikariaren kontzertu akustikoa:
Fran Urias, Armo, Xanet, Juanpa
Agirre eta Harrot.
20:30ean, gaztetxean.

LARUNBATA 22

ALTSASU Gazte agenda: **Play**
txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

OLATZAGUTIA *Desitsatsi*

erakusketa bizia.
18:30etik 19:30era, *Clinker*
jatetxean.

OLATZAGUTIA *Got Rhythm Txus*
Eguilazen ikuskizuna.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gatibu taldearen
kontzertua.
Sarrerak agortuta.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 23

ALTSASU Irantzu – Azanza
haitzak – Larraiza – Otaribela
ibilbidea eginen du Altsasuko
Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Haur txikiendako
Baby Esferic Aboon Teatro
konpainiaren ikuskizuna.
12:00etan eta 13:15ean, Iortia
kultur gunean.

OLATZAGUTIA *Aioko* Zurrunka
Teatro konpainiaren
familiarreko antzezlan.

ETXARRI ARANATZ *Anderea*
dokumentalaren emanaldia eta

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El amor en su lugar
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Ostirala 21: 19:00
Igandea 23: 19:30

The King's man gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 27: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La historia de mi mujer
zineforum filmaren emanaldia
Igandea 23: 19:30

Delicioso zineforum filmaren
emanaldia
Osteguna 27: 19:00

Yolanda Mazkieran egilearekin
solasaldia.
18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN *Azterrian lurra*
garratz euskarazko antzezlan.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Euskal preso*
eta iheslariak *etxera*
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.



ETXEPARE SARIAK

URDIAN Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa.
Nafarroako Gobernuko euskara zerbitzuek antolatuta.
Ilbeltzaren 24tik otsailaren 11ra. Liburutegian.

JAIOTZAK

- **Anaitz Fuste Garcia**, ilbeltzaren 11n Ziordian
- **Manex Garziandia Garziandia**, ilbeltzaren 14an Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

- **Josefina Leiza Reparaz**, ilbeltzaren 13an Arbizun
- **Valentin Zelaia Urtsun**, ilbeltzaren 15ean Urdiainen
- **Txomin Erauskin Lazkano**, ilbeltzaren 16an Etxarri Aranatz
- **Maria Ageda Mendiola Garziandia**, ilbeltzaren 16an Etxarri Aranatz
- **Jose Antonio Dorronsoro Zurutuza**, ilbeltzaren 17an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI
EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Altsasuko Amaia kafetegian
zerbitzaria behar da: Asteburue-
tan eta egun berezietan lan egite-
ko. Deitu 667 536 395 tfnora.

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri
Aranazko Santakitz kalean. Intere-
satuek deitu 669 156 117 tfnora.

IKASTAROA

Olaztin Gurasoentzako Eskola:
Guraso izateari buruz hitz egiteko
saioak Merte Blancoekin (psiko-

logoa eta terapeuta). Urtarrilak 27,
otsailak 25, marxoak 25, apirilak
29, maiatzak 27 eta ekainak 17.
9:30tik 11:30ra Olaztin Akelarre
Ludotekan. Izena ematea urtarri-
aren 26ra arte 948 467 662 tele-
fonoan.

Elhuyar Zientzia Azokaren 10.
Edizioa: izena emateko epea zaba-
lik otsailaren 28a arte, Elhuyar
Zientzia Azokaren web orrian. 12-18
urte bitarteko gazteei eta beren
irakasleei zientzia eta teknologia
proiektuak garatzeko gonbita luza-
tzen zaie, hala, beren proiektuen
barnean, gazteek zientzia eta tek-
nologiko benetako profesionalak
ezagutuko dituzte, haiekin aben-
turak eta bizipenak partekatuko

dituzte eta beren lanean bidelagun
izango dituzte. 301 ikertzailek eman
dute izena proiektuan parte hartze-
ko, eta gazte taldeek haien laguntza
jasoko dute beren zientzia proiektuak
garatzeko. Ekainaren lehen astebu-
ruan ospatuko da Elhuyar Zientzia
Azokaren ekitaldi nagusia Bilboko
Areatzako kaian eta gazteek egi-
niko lanak aurrez aurre ezagu-
tzeko aukera izango da.

LEHIAKETA

**Asun Casasola VII. Ipuin Lehia-
keta:** Aurtengo gaia "Iristerakoan
jakinarazi" izango da. Lau katego-
ria izango ditu lehiaketak: 10 – 16
urte arteko gazteendako euskara

eta gaztelarazko kategoriak eta 16
urteetik gorakoentzat ere euskara
eta gaztelarazko kategoriak. Lanak
bidaltzeko epea otsailaren 10ean
amaitzen da. Sariak 300 eta 100
euro bitartean egongo dira. Oina-
rriak <https://asuncasasolaipuinak.eus/oinarriak>-bases estekan kon-
tsultatu daitezke edo asuncasasolaipuin@gmail.com helbidera
idatzi.

OHARRAK

Olaztin irakurle taldea: "Algo
en lo que creer" liburuari buruz
arrituko dira, gaur, ostirala,
19:00etan liburutegian.

**Aralarko santutegi ondoan da-
goen eraikina (Lakuntzetxe)**
**zaharbertzako proiektuan la-
gundu nahi duenak:** ES11 3008
0045 9840 7184 5517 kontu ko-
rrontean egin dezake ekarpena.
Mezenazgo Legean jasotako
proiektua denez, dirua ematen
dutenei errenta aitopena egitean
zati bat bueltatuko diote.

Irurtzungo konpartsa: Erraldoiak
dantatzeko jende premia dago
Irurtzunen. Interesa duenak hots
egin dezala 690 335 196 (Amalia)
telefono zenbakira.

Nafarroako Filmotekaren Gure
**oroimenaren fotogramak eki-
mena:** Nafarroako Ondare Filmo-
grafikoa bildu, digitalizatu eta


zaintzeko asmoarekin, Filmotekak
herritarrei deia egiten die etxean
izan dezakeen materiala dokumen-
tatu nahi duelako. Material orok
balioa duela jakinarazi nahi dute
(kamerak, proiektoreak, aldizka-
riak, gidoiak, bobinak, VHS, Beta-
cam, DVDak, filmak...) Bi aukera
daude materiala uzteko; Gordailua
(Epe baterako uzten da, material
digitalizatuaren kopia bat ematen
zaio gordailugileari, eta nahi due-
nean berreskura dezake bere
materiala arxibotik) eta dohaintza
(Materiala ezin da arxibotik jaso,
Arxiboari ematen zaizkio eskubi-
deak, material digitalizatuaren
kopia bat ematen zaio dohaintza
emaileari). Galdetu zure herriko

liburutegian, han emango dizute
informazio gehiago, beraiek egin-
go dute bitartekari lana eta. Edo
deitu Nafarroako Filmotekako
Arxibora 848 424 750 (filmoteca.archivo@navarra.es) edo Liburu-
tegi Zerbitzura 848 427 784 (cfla-marg@navarra.es).

Mikel Arregiri buruzko liburua
honako tokietan erosi daitezke:
Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta
Estankoen; Etxarri Aranatz
Arkatz liburu dendan eta Altsasun
dago salgai


iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus



DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea Industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKERTZA



**Javier
Miranda Mundiñano**

Momentu zail hauetan familiarekin bat egin dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu eta bereziki Etxarriko Osasun Etxeko Amaia medikuari eta Esther erizainari.

Familia

ESKELA




**Txomin
Erauskin Lazkano**

Gaztea nintzarian denbora batian...

Etxekuek
Etxarri Aranatz

ESKELA



**Txomin
Erauskin Lazkano**

Beti gure bihotzetan

Pilar, Amaia, Belen, Juanra eta Ixa
Etxarri Aranatz

ESKELA

**Maria Ageda
Mendiola
Garziandia**

(Frantsixeneko izeba Marie)
(1930/04/10 - 2022/01/16)

Anai-arrebak: Antonio (†) eta Luzia Etxarri, Jexus (†) eta Puri Barandalla eta ilobak.

Antonio eta Jexusen etxekuek
Etxarri Aranatz




ESKERTZA

**Txomin
Erauskin Lazkano**

Familiak eskerrak eman nahi ditu jasotako maitasun keinuengatik eta bereziki Etxarriko Osasun Etxeko langileei, Altsasuko Josefina Arregiko Eguneko zentrokoei eta Nafarroako ospitaleko E geriatría pabiloiko erizainei jasotako arretagatik.

ESKELA



**Txomin laguna,
ikusi arte**
—Goian bego—

Beñat, Xabier, Estibalitz eta Pablo
Etxarri Aranatz

ESKELA




**Consuelo
Muñoz Maestu**

Zurekin ez zen falta poz eta algara batera maitasunez hazi izan gara denoi laguntzeko prest beti egon zara jaso zazu bihotzez denon besarkada. Mila esker guztiagatik

Zure familia

ESKELA



**Daniel
Agirre Etxeberria**

Eskerrik asko, Daniel

Izaskun



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Haurrendako album ilustratuak egiteko deialdia

Nafarroako 22 toki entitateek, Sakanako Mankomunitatea barne, Etxepare Saria aurkeztu dute

SAKANA

Beste urte batez Haurrendako album ilustratuak sortzeko Etxepare Saria aurkeztu dute. Lanak euskaraz idatziak izanen dira, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Lehiaketan sortzaileek banaka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean aurkez daitezke, eta egileek nahi beste lan aurkez ditzakete. Formatu libre da, baina lanak ez dira 20x21 zentimetro baino txikiagoak izanen, eta gutxienez hamabost orrialde bikoitz izanen dituzte. Testuek 4.000 karaktere baino

gehiago izanen dituzte. Lanak *etxeparesaria.eus* bidez edo Leitzako udaletxera bidaliz aurkez daitezke. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 6an amaitzen da. 5.000 euroko sari bakarria emanen da, eta Pamielak saritutako lana argitaratuko du.

Bitartean, Etxepare sarietako albumen erakusketa antolatuko dute Urdaingo, Olaztiko eta Ziordiko liburutegietan ilbeltzaren 24tik otsailaren 11ra, otsailaren 14tik martxoaren 4ra eta martxoaren 7tik 25era, hurrenez hurren.



BAZTERRETIK
JUANKAR LOPEZ-
MUGARTZA

Dekienak deki, ta eztekiek baleki, ze ongi!

Euskara hizkuntzen naufragio erraldoi batetik bizirik atera zen naufragio bakarria da. Hondoratzen ari zen hizkuntza txikien itsasontziaren ohol bati irmoki helduta biziraun zuen. Itsasoan flotatzen egon zen menderen mendetan, eta bere ahaide eta adiskide guztiak ito zirelarik, berak, batek jakin nola, arrisku eta oztupo guztiak gainditu zituen eta garaile atera zen bere uharte isolatu txikian.

Irain, jazarpen, zigor, eta debekuen arrosarioa jasan behar izan zuen, usoa bezain txikia zelako dragoien erresuman.

Halere, banan-banan oztupo guztiak gainditzen zituen arren, gero eta ahulduago zegoen, gero eta txikiagoak ziren bere irlaren mugak eta maite zutenek berek ere esaten zioten hango mendietan babesten zela, zerutik hurbilago hiltzeko.

Baina naufragio batek ez dio inoiz ere bizitzari itzuri egiten. Aitzitik, oholari indar gehiagoz heltzen dio, jantziak urratu, eskuak umeldurik,

baina inoiz ere ez itorik. Indarrak batu zituen eta berriz ere salbatu zen, eskoletan sartuz eta bere hatsa Euskal Herriko txoko guztietara hedatuz.

Indarrak batzeak, ordea, aberastasunak galtzea ekarri zuen. Etxeko hitz eta berezko doinuak bazterrean utzi behar izan zituen. Eta batasunak bidean uzten zuen letra bakoitzeko, arbasoen arimaren zati bat galtzen zen, maitasun hitz oro, noizbait gure amaren ahotik entzun genituenak ere bai.

Horregatik, udaz geroztik Adur, Ainarra, Joxe Ramon, Gazte Asanblada eta "Lakuntza auskias" taldeko guztiak egiten ari direna garrantzi handikoa da, gure hitzak, gure ohiturak eta kultura, gure arima gal ez dadin lanean ari direlako. Joan den abenduaren 3an ("Nafarroko egune ta euskeran egune") Leire Lizak bere lehenengo hitza eman zigun "Lakuntzan ze berri" Facebookeko gunean, "Pexixe", eta Jone Aretak Gabon gauean bukaera eman zion (denbora labur batez, ezta?) "Lakuntzako auskias akordetzen yeiz?" sailari: "Olentzer gabien itxes itxe jua ten da opariyek uzten. Guaikoz... azken hitze!"

Mila esker zuei guztioi, hari heltzeko naufragioari ezin ohol sendoagorik emateagatik.

Sormena sustatzeko sariketak prest

Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak ibarreko ikasleendako eta euskara ikasleendako antolatzen dituen literatura lehiaketan 2022ko edizioa martxan jarri du. Lanak martxoaren 31ra arte aurkez daitezke

SAKANA

Sakanako gazteek sormena lantzea da Maria Markotegi sariaren helburua. Ibarrean bizi diren edo ikastetxea duten DBHko lehenengo mailako ikasleek aurkez ditzakete lanak, adinaren arabera sailetan banatuta. Lau sail daude: narrazio laburrak, poesiak, komikiak edo booktubeak. Lanak bidaltzeko epea martxoaren 31n bukatuko da, eta ikastetxeek ikasleen izenean lanak bidaltzeko aukera izanen dute.

Ikasleen adinaren arabera lau kategoria daude: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila, LHko 5. eta 6. maila, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila, eta DBHko 3. eta 4. maila. Lau kategoriako ikasleek narrazio laburrak, poesiak eta komikiak sailetan parte har dezakete, baina booktubeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek aurkez ditzakete bakarrik.

Lanak originalak, aurrez saritu eta argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira. Gaia libre da, booktubeetan izan ezik; izan ere, booktubeak liburu baten inguruko bideo bat egitean datza. Lanen luzera kategorien arabera izanen da: narrazio laburretan lehenengo kategorian gutxienez orrialde bat aurkeztu behar da, eta laugarren kategorian, gehienez, zazpi orrialde. Poesiaren atalean gutxienez hamar lerro eta gehienez, laugarren kategorian, 80 lerro eta komikiaren kasuan orrialde bat eta bost orrialderen tartea dago, kategorien arabera. Booktubeen kasuan gutxienez 1,5 minutuko bideo bat egin behar dute hirugarren kategoriakoek, eta gehienez hiru minutuko sortuko dute laugarren kategoriakoek.

Sakanako Mankomunitateak ere lanak aurkezteko modua zehaztu du: narrazio laburrak eta poesiak 12 puntuko hitz taiman aurkeztu behar dira eta ordenagailuz idatzirik aurkeztu-



Morkotsek Markotegi sarietarako egindako irudia. SAKANA MANK

ko dira. Komikien kasuan DIN-3 taimainakoak izatea gomendatzen dute, eta eskuz egindakoak izan behar dute. Lanak bakarkakoak izanen dira, booktubeak izan ezik, binaka egin daitezkeelako.

Aurkezpena

Lanak plika sisteman aurkeztuko dira, hau da, lan guztiek goitzen batekin izenpetuko dira eta aparteko gutun azal batean egilearen datuak sartuko dira antolakuntzak banatutako ereduaren idatzirik. Lan bakoitzak bere gutun azala eta plika izanen ditu. Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako bulegoan aurkeztu behar dira lanak. Beste aukera bat mankomunitatearen webgunetik aurkeztea da. Bestetik, booktubeak USB batean egoitza edo Wetransfer bidez bidaliko dira euskara1@sakana-mank.eus helbidera.

Sari banaketa ekitaldi publiko batean egitea aurreikusten du Sakanako Mankomunitateak. Guztira, 28 sari banatuko dira, ikasmila eta kategoria bakoitzeko bat. Adin kategoriaren arabera, liburu denda batean erabiltzeko 50, 70, 90 eta 110 euroko txartelak banatuko dituzte

irabazleen artean. Aurkezten diren lan guztien egileek oroi-garria jasoko dute.

Nanoipuinak

Nanoipuin saria euskara ikasleek edo Mintzakide programako parte hartzaileek aurkez dezakete 100 eta 150 hitz tarteko lanak. Hiru maila daude: A1 eta A2 ikasleena, B1 ikasleena eta B2 eta C1 ikasleena. Mintzakideen kasuan euskara eza-gutzaren arabera dagokien kategorian parte ahal izanen dute.

Sakanako Mankomunitateak euskaraz ikasleendako eta mintzakideendako Nanoipuinak egiten ikasteko lantegia antolatu du Etxarri Aranatzan, Yolanda Arrietarekin, otsailaren 22an, 09:30ean edo 19:00etan. Itsasi euskaltegian edo Sakanako Euskara Zerbitzuan eman daiteke izena. Idazlanak aurkezteko azken eguna martxoaren 31 izanen da, eta Internet bidez bidaliko dira sakana-mank.eus webgunetik. Parte hartzaile guztiek oroigarria jasoko dute, eta sari-dunek 150 euroko txartel bana jasoko dute liburudendetan erabiltzeko.



Etxarri Aranazko Abesbatzak Xabiergo auditorioan eskaini zuen kontzertua. ARTXIBOA

Etxarri Aranazko abesbatza eta lagunen neguko kontzertua

Eguberrietako kontzertua atzeratu behar izan zuten eta data berria jarri dute: ilbeltzak 30

ETXARRI ARANATZ

Pandemia egoeragatik Etxarri Aranazko Abesbatzak 50. urterrenaren ospakizun gazi-goxoak izan ditu. Besteak beste, abesbatzaren historiaren inguruko ikerketa abiatu zuten, eta argazkiekin eta objektuekin erakusketak osatu zute. Urtemugaren logoa aurkeztu zuten ere, lehia-keta publikoan aukeratutakoa. Kontzertu berezia egin nahi zuten ere.

Eguberrien atarian kontzertu berezia eskaini behar zuten, baina COVID-19 birusaren kasuek gora egin zuten, emanaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Abesbatzarekin batera zenbait "lagun" aritu behar ziren. Egoerak hobera egin duenez, kontzertuarekin aurrera egitea erabaki dute, eta ilbeltzaren 30ean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizaren egiten dute kontzertua. Edukiera mugatua izanen da, eta sarrera doan izanen da, bete arte. Ateen irekiera 18:30ean izanen da.

Etxarri and Friends kontzertuan Etxarri Aranazko Abesbatza ez da bakarrik egonen, eta zenbait abestitan musikari gonbidatuekin ariko da, esaterako Francisco Javier Asensio akordeoilari jolea, Nerea Gonzalo, Lola Elorza, Juana Jaka eta Ainaro Roda sopranoak, Jose Luis Maiza tenorea, Pablo Azpeitia eta Aitor Senar baritonoak, Hiba Etxebarria, Alicia Torrea, Maria Jesus Iribarren, Jon Goenaga eta Juan Urdaniz piano joleak, Imanol Miranda eta Raul del Toro orga-

no joleak, Xabier Garciandia atabal jolea, Etorkizuna dantza taldea eta Burundar Txistulariak taldea. Alicia Armendariz abesbatzaren zuzendaria ez ezik, zuzendari gehiagok zuzenduko dute korala zenbait abestitan: Karlos Ekiza, Javier Busto eta Inge Conde.

Errepertorioari dagokionez, bost abesti lehenengo aldiz interpretatuko dituzte: Francisco Javier Asensioaren *50 Taupada* Etxarrin abesbatzaren urterrenerako propio egindako abestia, Inge Conderen *Hegaka* abestia, Francisco Idaretaren *Compasión* abestia Francisco Javier Asensioarekin, Alicia Torrea-rekin, Imanol Mirandarekin eta Xabier Garciandiarekin egiten dutena, eta Etorkizuna dantza taldearen dantzak ere izanen dituena, Javier Bustoren Hiru euskal doinu eta Karlos Ekizaren *Traun eta iraun!* abestia. Abesti bereziak interpretatuko dituzte ere, esaterako, Hiba Etxebarriak sortutako Nire eskuetan balego, musikariak berak pianoa eta ahotsa jarriko dituela, edo Randy Edelmanen abestiaren Adur Goikoetxeak moldatu duen Aurrera Etxarri abestia, Jon Goenaga piano jolearen laguntza izanen dutela.

Bestetik, Aita Madinaren *Aita Gurea* abestia, Hayden Die Schöpfung: *Die himmel erzählen die ehre gottes* eta *Nun beut die flur abestiek* eta Bizeten Carmenen *Couplets* abestiek ere osatuko dute Etxarri and Frines kontzertua.



'Bidaide' antzezlanaren sorkuntza. MENDI URRUZUNO

Herri kulturgintzaren zenbait istorio

Etxarri Aranatz 'Geuretik sortuak' Udalbiltzaren kultur ekimenaren parte izan zen, eta horregatik proiektuan garatutako bost antzezlanak herriko kultur etxean izanen dira. Lehenengo ilbeltzak 28an, Metrokoadrokaren 'Bidaide'

ETXARRI ARANATZ

"Azken urtetan, globalizazioarengatik eta espainiar eta frantziar estatuen ahalbide guztien-erantz, atzerriko hizkuntzetan egindako kultura nagusitzen ari da, gure hizkuntzan egindako artearen kalterako". Egoera horri erantzuteko Udalbiltzak *Geuretik sortuak* euskal kultur proiektuak martxan jarri zuten. Helburua euskara hutsean egindako artea eta kulturaren sormena da, baita ekoizpena sustatzeko dituen zirkuitu bat sortu ere. Udalbiltzak eskainitako beken bidez, 25 bat artistek egonaldiak egin zituzten Euskal Herriko zenbait txokotan. Hiru sailetan banatu zituzten lanak: literatura, zinemagintza eta antzerkigintza. Sakanaren kasuan, Yolanda Arrieta Etxarri Aranatzaren egon zen liburua sortzen.

Sorkuntza prozesua amaituta, euskal artisten lanak aurkezteko garaia heldu da, eta Etxarri Aranatz *Geuretik sortuak* ekimenaren egoitza bat izanik, ekimenean

sortutako antzezlanak eskaintzeko aukera izanen du. Hortaz, ilbeltzaren 28an, ostirala, 19:00etan, Metrokoadroka Sormen Laborategiaren *Bidaide* antzezlanaren da Etxarri Aranazko kultur etxean. Martxoaren 25ean Bonbon beltz konpainiaren *Harri minak* antzezlanaren da, apirilaren 8an Tanttakaren *Sexberdinak*, apirilaren 19an Oier Zuñigaren *Eresia* eta uztailearen 20an, kalean, Lore Moreren *Trapu zikinak* antzezlanaren da. Gainera, otsailaren 3an Yolanda Arrietak herrian inspiratutako *Hamaseigarren aidanez* liburua aurkeztuko du.

Herriko kultura

Metrokoadroka Sormen Lantegiak Atarrabian eta Uhartan egin zuten egonaldia. "Sormen egonaldiak bi herrietan egin ditugu, eta bertako kulturgileei eginiko elkarrizketak izan dira obraren ardatza". Bertako artistek kontatutakoa "inspirazio iturria" izan dela esan dute konpainiako

Iraia Elias eta Idoia Beratarbide kideek. *Bidaide* antzezlanak "herriko kulturgileei" hitz egiten du. "Gure irudipena, gaiari dagokionez, gutxitan landu den kulturari buruzko ikuspegi bat eskaintzen saiatu garelako da". Gai nagusiak anonimotasuna, ikusezintasuna, kontatu gabekoa, artea eta herrigintzaren arteko harremana eta abar dira, "modu poetiko eta umoretsuan". Antzezlanaren kontaketa direnak "edozein herriko kulturgileek" ezagutuko dituela esan dute.

Geuretik sortuak Udalbiltzaren ekimenak "sorpresaz" hartu zituen, "euskal antzerkiko eragileok urte luzez aldarrikatzen ari garen gauza asko aintzat hartzen zutelako: sormen prozesuaren garrantzia, euskarazko sorkuntzari zentralitatea ematea, berezko estetikaren bilaketa, laguntzaren barruan sortzaileen sormen askatasuna errespetatzea, sorkuntzarako baldintza egokiak bermatzea eta sortu osteko banaketarako baliabideak jartzea".

"Laba euskarazko kultur proiektu bat da"

Iruñeko Gaztelu plazan Laba Sareak espazioa mustu du. Lokal bat baino gehiago da, pixkanaka garatzen ari diren kultur proiektu bat da. Sarean Altsasun sustraiak dituen Erkuden Aldasoro Erreak parte hartzen du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer da Laba?

Askotan eskatu digute definizio bat, baina egia esan ez dago guztiz definituta. Euskara tresna duen kultur proiektu bat dela esango nuke. Gauza batzuk definitu dira, batez ere zer den. Momentuz, kafetegi eta kultur gune bat da. Baina hor gertatuko diren gauza asko irekita ditugu. Oraindik zerbait eratzeko bidean dago, eta jendea parte hartzera gonbidatuta dago.

2 Nortzuk osatzen duzue proiektua? Nork parte har dezake?

Parte har dezake nahi duen orok. Nahiko talde anitza gaude. Orain arteko ibilbidean 40 edo 50 bat lagunek parte hartu dugu. Adinak denetariokoak dira, gazteenak 18 edo 19 urte ditu eta zaharrenak 60 urte baino gehiago. Profilaren aldetik ere oso anitza da. Gauzak egiteko gogoia duen edonork parte har dezake. Hor gauden jende askok ez genuen aurretik elkar ezagutzen, eta hori oso interesgarria iruditzen zait. Gauza kulturalak antolatzen ari den jendea dago, eta beste batzuk, esperientzia gutxi baina gogasko dutenak dira. Nahasketan hori oso interesgarria da.



Erkuden Aldasoro Errea, Laba Sareko partaidea. UTZITAKOIA

3 Nola sortu da proiektua?

Karrikiri elkartera kultur proiektu bat egiteko gonbidapena iritsi zen eta hiriko jendeak gonbidapena luzatu zuen. Euskarekin lotura duen familia baten lokala da, eta bertan kultura euskaraz sustatzeko zerbait egiteko eskaera iritsi zen. Gonbidapen

nahiko zabala izan zen. Hor hasi zen ideia, lantegi bat, ea zer egin zitekeen eta pixkanaka forma hartzen eta definitzen joan da.

4 Nolako izan da prozesua?

Pixka bat zaila izan da. Pandemiarekin elkartzeko aukera gutxi zeuden. Gorabeheratsua

izan da. Bestalde, alde batetik zer gustatuko litzaziguke egitea, zer den posible egitea eta lokalaren arabera zer egin daitekeen definitzen joan gara. Lokala handia da gauza batzuetarako, baina txikia beste gauza batzuetarako. Iruñeak oraingoz ez zeukana edo dauden proiektuekiko gehigarria izango zen zerbait definitzen joan gara. Espazioa auzolanean egin dugu. Baziren egin ezin genituen obra batzuk, baina altzariak eta horrelakoak guk egin ditugu.

5 Zergatik parte hartu duzu?

Orain irakasle lanetan ari naizen arren, arkitektoa naiz, eta espazioaren antolaketa kontuan lagundu ahal otenuen interesatzen zitzaidan. Gero asko ikasi dut beste gauza askotatik ere. Ez nuke jakingo esaten zehazki zer ikasi dudan, baina asko ikasi dut.

6 Espazioa Iruñean dago. Irekia da, ezta?

Bai, guztiz. Gainera, kokapena estrategiakoa da. Gaztelu plazan dago iruindarron eta nafarron egongela kontsideratzen dena. Guztiz irekia dago nahi duenarentzat.

7 Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Egunez, kafetegi bat da. Aldi berean elkartzeko modu baten gisa planteatzen dugu ere. Oholtza bat dauka bertan kultur ekitaldiak antolatu ahal izateko. Momentuz, hori da. Orain arte espazioa definitzen aritu gara, eta hemendik aurrera proiektuen alde kulturala definitzen ari gara. Oraindik irekia dago. Bertan denda bat egotea ere pentsatu dugu, bertako produktuei bideratuta. Baina hori plangintzan dago oraingoz.

8 Kultur egitarauak prestatuko dituzue?

Nolabaiteko ildo batzuk prestatzen ari gara. Ekitaldi solteak antolatzea planteatzen ari gara, baina epe luzerako edo behintzat ildo bat jarraituko duten proiektuak ere antolatu nahi ditugu, eta hori definitzen ari gara.

9 Nola finantzatzen zarete?

Elkarte asko hasten diren bezala hasi ginen, bazkidezarekin. Gero crowdfunding zabal bat egin genuen lokalak marko legalera egokitzeko obrak behar zituelako, elbarrientzako komuna eta horrelako egokitze batzuk behar zituen, eta crowdfunding baten beharra ikusi genuen. Hemendik aurrera gure asmoa da bazkideza zabaltzea, bazkide gehiago lortzea, eta beste diru iturri gehiago bilatzea. Baina bazkideza izango da gure oinarria.

10 Zerbait hartzera joan ez ezik, nola parte har dezakete sakanadarrek?

Sare sozialetatik edo webgunean dugun korreoaren bidez gurekin harremanetan jarritz.

11 Zergatik Laba izena?

Proiektuarekin hasi ginean izenak pentsatzen aritu ginen eta ikusi genuen euskal gauzetan asko zirela urarekin eta euriarekin zerikusia zuten izenak. Guk hortik urrundu nahi genuen. Sumendiarena eta labarena metafora polita iruditu zitzaigun esateko poliki gatzela, baina bagatzela. Ahoskatzeko erraza izatea nahi genuen ere, bai euskaldunentzat bai erdaldunentzat. Justu, garai horretan, La Palmako sumendia izan zen. Bat egin zuen.

**ZURE MARKA
DESBLOKEATZEKO
GAKOA
DUGU**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu